- erakutsiz, eta euskaraz jarduteko gai diren herri-langileek beren lanean euskararen erabilera areagotuz.
3. **Abenduaren 31karako V. Plangintzaldiari dagokion euskara plana egina izateko.**
  4. **Herritarrengan euskararen aldeko atxikimendua sendotzea helburu duten ekintzak bideratzeko, euskararen aldeko jarrerak sustatzeko, eta herritarrak euskararen munduez disfrutatzerantz animatzeko.**
  5. **Euskararen erabilera, bereziki gazteen artean eta eremu ez formaletan sendotzeko ekimenak planifikatu eta gauzatzeko, euskara biziberritu eta sustatzeko plangintza orokorraren baitan.**
  6. **Udal honen baitan eta gure udalerrian, euskararen sustapenerako ekimen eta politiken inguruko adostasun sozial eta politiko zabal eta sakonena bilatzeko.**
- incrementando el uso del euskera en su trabajo por parte de los empleados públicos capaces de utilizarlo.
3. **Elaborar el plan de euskera correspondiente al V Período de Planificación antes del 31 de diciembre.**
  4. **Promover acciones que persigan el objetivo de fortalecer la adhesión de la ciudadanía hacia el euskera, fomentar las actitudes favorables al euskera, y animar a la ciudadanía a disfrutar de los diversos mundos del euskera.**
  5. **Planificar y llevar a la práctica actuaciones tendentes a acrecentar el uso del euskera, especialmente entre la juventud y en los ámbitos no formales, en el marco de la planificación general para la revitalización del euskera.**
  6. **Procurar, en el contexto de este Ayuntamiento y municipio, el más amplio y profundo consenso social y político en torno a las iniciativas y políticas de fomento del euskera.**

**134.- PP ALDERDIKO UDAL TALDE POLITIKOAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: GETXO MERKATARITZA-BONUA.**

Maria Arrue andreak mozioa irakurtzen du; hots, honela dio:

Getxo zerbitzu udalerría da eta gure herrian burutzen den jarduera ekonomikoa, ia-ia guztia, sektore horretakoa da, bertako enplegua eta lana

**134.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL POPULAR S/ IMPLANTACIÓN DEL BONO COMERCIO GETXO.**

Maria Arrue da lectura a la moción que indica lo siguiente:

Getxo es un municipio de servicios y casi toda la actividad económica que se desarrolla en nuestro pueblo es de este sector, por lo que el empleo y el trabajo

ere, hein handi batean, sektore horren mende daude.

Gabonak kontsumoa dagoen garaia da eta, *ustez*, gure dendek egiten dituzten salmentak nabarmen gehitzen omen dira. Hain zuzen, gure merkatarietako askok, bere horretan iraun nahi badute, urte-saso honetan egiten dituzten salmenten mende daude; horregatik bada, erakunde gehienek Gabonetan merkataritzaren alde kanpaina egin ohi dute.

Udaleko Talde Popularrekoak betidanik sentiberak izan gara gure udalerriko merkataritza jarduerari eragite aldera, zergatiak hainbat ditugu, behinena esatekotan, Getxo lo egiteko udalerrri bihur dadin nahi ez izatea, bihurtzeko bidean bada ere.

Iazko Gabonetan egin zen gisan, aurtengo Gabonetarako ere gobernu taldeari proposamen batzuk azaldu dizkiogu, Getxoko udalerriko merkataritzaren alde kontsumoa sustatzeagatik.

Proposatutakoak hona, **Getxo merkataritza-bonua, haurtzaindegi-zerbitzua doan, doan aparkatzea edo otsailerako deskontu-balea doan.**

Ogasun batzordeak azkena egindako bileran, proposamen horiek guztiak eztabaidatu ditugu, adostasun batera iritsi ez bagara ere. Alabaina, **Getxo merkataritza-bonua** ezartzeko proposamena berriz ere aintzat hartu beharko litzatela deritzogu, erraz aplikatu baitaiteke.

Gure proposamena Bizkaiko Foru Aldundiak abian jarri duenaren antzekoa da, *PP taldeak aurrekontuei egindako zuzenketaren ondorioz*; baita beste udal

también dependen en gran medida del mismo.

La Navidad es, en teoría, la época en la que el consumo y las ventas de nuestros comercios aumentan notablemente. De hecho muchos de nuestros comerciantes dependen, para subsistir, de las ventas de esta época del año; por ello desde la mayoría de las Instituciones se hacen campañas de apoyo al Comercio en Navidades.

Los populares siempre hemos estado sensibilizados con potenciar la actividad comercial de nuestro municipio, entre otras razones, porque no queremos que Getxo se convierta en un municipio dormitorio como lleva camino de convertirse.

Al igual que hicimos en las pasadas navidades, este año también hemos presentado al equipo de gobierno una serie de propuestas para potenciar el consumo en el comercio getxotarra en estas Navidades.

Propuestas como **El Bono Comercio Getxo, Guarderías gratuitas Aparcamiento gratuito o el Vale descuento gratuito para febrero.**

En la pasada comisión de Hacienda tuvimos oportunidad de debatir sobre todas ellas sin conseguir llegar a un consenso, sin embargo consideramos que debemos insistir, por su fácil aplicación en la propuesta del **Bono Comercio Getxo.**

Nuestra propuesta es similar a la que ha puesto en marcha la Diputación Foral de Bizkaia, *por enmienda del PP a los presupuestos*, y otros Ayuntamientos como

batzuenaren antzekoa ere, esateko Bilbokoarena, Sestaokoarena edo Portugaletekoarena.

Jarraitu beharreko eredua alde aurretik zedarritu beharrean, guk lehenengo proposatzen duguna Getxo-bonua txartela 10 euroren truke salgai jartzea da, zeinak, sustapenera atxikitako lokaletan 20 euroko erosketa egitea ahalbidetuko duen. Bono bakoitzarekiko 10 euroko aldea Getxoko Udalak jarriko luke.

Getxo bonu horiek Gabonetako aldirako soilik balioko lukete eta, seguruenik, udalerriko dendetan erostea sustatuko luke.

Hargatik guztiagatik, Getxoko udal talde Popularrak aurkezten du hurrengo **ERABAKI-PROPOSAMENA:**

**LEHENENGOA:** Getxoko Udaleko Osoko Bilkurak Udal Gobernuari eskatzen dio, **Getxo Merkataritza-Bonuak** paratuta abian jar ditzala, Getxoko merkataritza 2013-2014ko Gabon-garaian sustatu nahian.

**BIGARRENA:** Mozio honen berri udal komunikabideetan zabalduko da.

Mozioarekin Udalak Gabonetako kanpainan dendei lagun diezaiela lortu nahi dela adierazten du, egoera ekonomiko horretan, non, dirua duen Udalak egunetik egunera etengabe suntsitzen ari den merkataritzari laguntzeko jardun behar duen. Mozioak planteatzen duena beste zenbait udaletan abian jarri dela emaitza onak lortuz adieraziz amaitzen du.

Ignacio Uriarte jaunak, Gobernu Taldearen izenean, proposamen hori

el de Bilbao, Sestao o Portugalete.

Sin querer predeterminar el modelo a seguir, nuestra propuesta pasaría por sacar a la venta una tarjeta Bono-Getxo por valor de 10 euros que permita la compra por importe de 20 euros en los locales adheridos a la promoción. La diferencia de 10 euros en cada bono sería aportada por el Ayuntamiento de Getxo.

Estos Bono-Getxo serían válidos únicamente durante la temporada Navideña y a buen seguro fomentarán el consumo en los comercios del municipio.

Por todo ello, el Grupo Municipal Popular de Getxo presenta la siguiente **PROPUESTA DE ACUERDO:**

**PRIMERO:** El Pleno Municipal del Ayuntamiento de Getxo, insta al Gobierno Municipal a preparar y poner en circulación los **Bonos Comercio Getxo** para la promoción del comercio getxotarra en el periodo Navideño 2013/2014.

**SEGUNDO:** Que se informe de la presente moción en los medios de comunicación municipales.

Indica que la moción busca que el Ayuntamiento ayude a los comerciantes en la campaña de Navidad y ante una situación económica de un Ayuntamiento con dinero ha de actuar ya que el comercio está destruyéndose de forma continuada. Finaliza manifestando que lo que la moción plantea se ha puesto en marcha en otros ayuntamientos con buenos resultados.

Ignacio Uriarte, en nombre del Equipo de Gobierno, manifiesta que esta propuesta

Ogasun Batzordean eztabaidatu zela eta talde politiko guztiek beren iritzia azaldu zutelara adierazten du, baina bere iritzia berriro ere Osoko Bilkuran azalduko duela dio. Talde guztiak bat datoz merkataritzari laguntzarekin eta Informazio-Batzordean esan zen gisan, Gobernu Taldea Bizkaiko Foru Aldundiaren bono-proposamenari atxikiko zaio eta programa hori izango da sustatuko dena eta ez zaio egokia iruditzen beste bono desberdin bat sortzea. Marisa Arrue andreak aipatu duen merkataritzaren diagnostikoa Udalak eskatu zuen eta haren emaitza udaleko talde politiko eta sektore guztiekin partekatu da eta, baita, udalaz gaindiko erakundeetako agenteekin ere eta, orain, gauzatu daitezkeen jarduerak aztertzen ari dira, zeinak, bideratzen direnean gizarteratuko diren eragindako sektore, talde politiko eta abarrekin. Gobernu Taldearen ustez, kanpaina honetan, Bizkaiko Foru Aldundiaren kanpainari atxikitzea da garrantzitsuena eta norbere ahaleginak eragindako sektorearekin elkarlanean oinarritzea.

Marisa Arrue andreak Barakaldon EAJ-PNV taldeak Bizkaiko Foru Aldundiaren bonoaz gain bono propioa eratzea eskatzen duela adierazten du, nahiz eta Getxon horren aurka azaldu. Talde Popularrak Bizkaiko Foru Aldundiaren bonoa babesten du, proposatu baitute, baina, Bizkaiko 112 udalerrietara hedatzen dela adierazten du eta Talde Popularrak Getxorentzako Getxoko bizilagunentzako eta dendentzako onuragarri izango den inbertsio moduko bat eskatzen du; beraz, Gobernu Taldeari berriz hausnartu dezala eskatzen diote, Barakaldon EAJ-PNV taldeko bozeramailea udal horretako Gobernu Taldeari eskatzen ari den gisan. Aurrekontuan proposamen hori abian jartzeko adina gordailu badagoela azpimarratzen du.

se debatió ya en la Comisión de Hacienda en la que se expuso la opinión de todos los grupos políticos pero que volverá a explicarla en el Pleno. Existe un consenso claro de todos los grupos de apoyo al comercio y como se dijo en la Comisión Informativa, el Equipo de Gobierno se adherirá a la propuesta del bono de la Diputación Foral de Bizkaia y este programa es el que se va a impulsar y no ve adecuado crear otro bono diferente. El diagnóstico del comercio al que se ha referido Marisa Arrue lo encargó el Ayuntamiento y el resultado se ha compartido con todos los grupos y sectores municipales así como agentes de instituciones supramunicipales y ahora se está estudiando las posibles actuaciones que en cuanto se perfilen se socializarán con los sectores afectados, grupos políticos, etc. El Equipo de Gobierno cree que lo importante es adherirse en esta campaña a la propuesta de Diputación Foral de Bizkaia y centrar los esfuerzos propios en actuaciones en colaboración con el sector afectado.

Marisa Arrue indica que en Barakaldo el PNV pide que se cree un bono propio además del de la Diputación Foral de Bizkaia, pero en Getxo se oponen. El Grupo Popular apoya el bono de la Diputación Foral de Bizkaia, ya que lo han propuesto, pero manifiesta que se extiende a los 112 municipios de Bizkaia y el Grupo Popular pide una especie inversión para Getxo que beneficie a los vecinos y comercios de Getxo por lo que pide al Equipo de Gobierno que recapacite, como está pidiendo la portavoz del PNV en Barakaldo al Equipo de Gobierno de aquel ayuntamiento. Insiste en que existe en el presupuesto consignación suficiente como para poner en marcha la propuesta.



Bingen Saiatua jaunak adierazten du mozioa iaz aurkeztu zela eta, orduan bezala, BILDU abstenitu egingo dela. Getxoko merkataritzari lagundu behar zaiola baieztapenarekin ados daude, baina ez inolako kontrolik gabeko laguntzekin eta kontsumismo puntuala eragiten dutenekin.

Luis Almansa jaunak adierazten du Talde Sozialista iaz mozio berdinaren aurrean abstenitu egin zela horrelako proposamenak Merkataritza-Mahaitik pasa behar dutela uste baitu, non, talde politiko guztiek hartu behar duten parte. Baina kontuan hartuta ezarri den lekuetan arrakasta lortu duela, hausnartzeko eskatzen dio Gobernu Taldeari. Alderdi Popularrari Rajoyren Gobernua laneko politikarekin, politika ekonomikoarekin egiten ari den krisiaren kudeaketan, adostasunik eza ez dela kontsumoa sustatzen ari adieraziz amaitzen du.

Ignacio Uriarte jaunak Udala eta bere talde teknikoaren dendariekin elkarrizketan ahalegina egiten ari dela egiaztatzen du eta proposamen hori eremu teknikora jaitea litzateke. Bizkaiko Foru Aldundiaren deskontu-bonoa abian jartzeko dela azpimarratzen du eta udalaren ahaleginak kaleen dinamizaziora, kultur jardueretara, denden azpiegituretara eta abar bideratu behar duela; hori guztia, eragindako sektoreekin lan eginez.

Marisa Arrue andreak adierazten du Bizkaiko Foru Aldundiak 46.000 bonoko bi tanda aterako dituela Bizkaia osorako eta mozioak Getxorako berariazko zerbait eskatzen duela. Sektoreak adierazten duenaren arabera, bonoaren proposamena da emaitzarik onenak eskaintzen dizkiena. EAJ-PNV taldearen jarrera ez duela ulertzen adierazten du, agintean dauden

Bingen Saiuta manifiesta que esta moción se presentó el año pasado y como en aquel entonces, BILDU se abstendrá. Están de acuerdo en que hay que ayudar al comercio de Getxo pero no con ayudas sin ningún tipo de control y que generan un consumismo puntual.

Luis Almansa indica que el Grupo Socialista el año pasado se abstuvo ante una moción idéntica en base a que este tipo de propuesta deberían de pasar por la Mesa de Comercio en la que opina deben de participar todos los grupos políticos pero que al parecer donde se ha implantado ha tenido éxito por lo que pide al Equipo de Gobierno que reflexione. Finaliza indicando al Partido Popular que la gestión de la crisis que están realizando a través del Gobierno de Rajoy con su política laboral, económica, de falta de consenso está desincentivando el consumo.

Ignacio Uriarte constata el esfuerzo que está haciendo el Ayuntamiento y su equipo técnico, la interlocución con el comercio y esta propuesta es descender al terreno técnico. Insiste en que ya va a ponerse en marcha el bono de descuento de la Diputación Foral de Bizkaia y el esfuerzo municipal debe dirigirse a dinamizaciones de calles, actuaciones culturales, infraestructura de comercios, etc. todo ello trabajando con los sectores afectados.

Marisa Arrue manifiesta que la Diputación Foral de Bizkaia va a sacar dos tandas de 46.000 bonos para todo Bizkaia y la moción pide algo específico para Getxo. Según manifiesta el sector la propuesta del bono es la que mejor resultados les ofrece. Insiste en no entender la postura del PNV ya que donde gobiernan y lo han implantado ha sido un éxito. A BILDU le

lekuetan eta ezarri dutenetan arrakasta lortu dutela kontuan hartuz. BILDU taldearekin ados dago ez duela zertan Gabonetan izan behar dioenean, baina, baita, data horietan ere. PP taldea Bizkaiko Foru Aldundiarekin udaberrian bonoa ezartzeko aukera negoziatzen ari dela adierazten du. Talde Sozialistari adierazten dio gaur poza hartu duela Zapatero lehendakari-oia krisia gainera zetorrenik ez zela ohartu aitortzen eta egungo gobernuari utzi dion oinordetzagatik barkamena eskatzen ikusi duenean.

Bingen Saitua jaunak adierazten du proposamena ikaragarrikeria iruditzen zaiela kostuaren erdia diruz laguntzea aurreikusten baitu, inolako gastu-mugarik gabe; ondorioz, onurarik handiena gehien duenari ematen zaio.

Alkateak adierazten du Gobernu Taldeak merkatariekin etengabe lanean diharduela Merkataritza-Mahaian. Getxo merkataritza-eremuan erreferente dela adierazten du bere kultur jarduerekin, kaleetan zeharreko animazioarekin, araudien aldaketarekin eta abar. PP alderdia udalerrira jende-kopuru handia erakartzen duten eta merkataritzari mesede egiten dien emanaldi nagusien aurka agertzen dela gogorarazten du. Merkataritzaren arazoa kontsumoaren jaitsiera dela eta, horretan, erantzukizun handia duela Rajoyren Gobernuaren politika ekonomikoak, BEZa igoz, soldatak jaitsiz, banku-krediturik ezarekin eta abar; beraz, PP taldeari gutxiengo autokritika bat eskatzen dio.

Mozioa bozkatu eta atzera botatzen da PP eta PSE-EE taldeen aldeko 11 boto eta EAJ-PNV eta BILDU taldeen 13 aurkako boto lortzean.

indica que está de acuerdo en que no tiene que ser sólo en Navidades pero también en estas fechas. Manifiesta que el PP está negociando con la Diputación Foral de Bizkaia la posible implantación de un bono en primavera. Al Grupo Socialista le manifiesta que hoy se ha llevado una alegría al ver al ex presidente Zapatero reconocer que no se dio cuenta que venía la crisis y pedir excusas por la herencia que ha dejado al actual gobierno.

Bingen Saitua indica que la propuesta les parece una barbaridad tanto porque incorpora la subvención de la mitad del coste sin que haya límite de gasto, por lo cual se favorece al que más tiene.

El Alcalde manifiesta que el Equipo de Gobierno está trabajando continuamente con los comerciantes en la Mesa de Comercio. Indica que Getxo es un referente en el ámbito comercial con sus actos culturales, animación en las calles, modificaciones de normativas, etc. Recuerda que el PP se posiciona en contra de los principales eventos que atraen un gran número de personas en el municipio y que favorecen al comercio. Estima que el problema del comercio es la bajada del consumo y en ello tiene gran responsabilidad la política económica del Gobierno de Rajoy con incremento del IVA, las bajadas de salarios, la falta de crédito bancario, etc., por lo que pide al PP un mínimo de autocrítica.

Sometida la moción a votación es rechazada al obtener 11 votos a favor: PP, PSE-EE, 13 votos en contra: PNV, BILDU.

**135.- PP ALDERDIKO UDAL TALDE  
POLITIKOAK AURKEZTUTAKO  
MOZIOA: JAIEN ORDENANTZA  
EGITEA.**

Javier Elorza jaunak mozioa irakurtzen du; hots, honela dio:

Getxoko udalerrriak nabarmengarri duena hainbatik hainbatean, zera da, jaiak ugari izatea, auzo argi asko mugatuak daudenetan egiten direnak, hain zuzen. Hala ere, ezin alde bat utzi ditzakegu San Inazioko jaiak, herri osoko jaiak, hitzak duen adiera guztizkoa aintzat hartuta.

Oraindano bitartean gure jaiak gozatu ahal izan ditugu jai batzordeek burutan atera dituzten programen bidez, ahaleginen ahaleginen eta udaleko gobernu taldearen laguntzaz.

Hala ere, guk uste dugunez, herriko jaiak gobernatzen dituen araudia zaharkitua dago eta gure herriko errealitateari moldatzen ez zaiona da, ez haren luze-zabalagatik ez haren aniztasunagatik.

Inguruabar horiek kontuan edukirik eta guk aditza daukagunez, egiten diren jaien ugarietasunagatik jaiak antolatzerakoan jai batzordeak buruz gain ibiltzen dira, hots, ezinean, eta horregatik beste eginbideren bat bilatu beharrean gaude, eginkorragoa eta bateratzaileagoa.

Batzuetan, batzordeak ez haien lana gaitzetsi nahi ezik, esker ona ez bada, jaiak herritar jakin batzuentzat baino ez dira parte-hartzeak eta herrikoiak.

Udalak bere aldetik jaiak

**135.- MOCIÓN DEL GRUPO  
MUNICIPAL POPULAR S/  
ELABORACIÓN DE UNA  
ORDENANZA DE FIESTAS.**

Javier Elorza da lectura a la moción que indica lo siguiente:

El municipio de Getxo se caracteriza, entre otras cosas, por contar con un elenco de fiestas notable que se suelen circunscribir a barrios claramente delimitados. No por ello podemos dejar de considerar las fiestas de San Ignacio, en gran medida, la fiesta del pueblo en el sentido más integrador de la palabra.

Hasta ahora hemos podido disfrutar de nuestras fiestas gracias a programas sacados adelante por las comisiones de fiestas, no sin esfuerzo, y con el apoyo del Ayuntamiento personificado por el equipo de gobierno.

Consideramos que la normativa que regula nuestras fiestas, se ha quedado obsoleta y no se acomoda a la realidad de nuestro municipio tanto en tamaño, como en pluralidad.

En este contexto entendemos que dada la multiplicidad de los hechos festivos, la organización de las fiestas supera la capacidad de las comisiones de fiestas y debemos buscar una fórmula más eficaz e integradora.

En ocasiones, sin menospreciar la labor de las comisiones y agradeciendo de antemano su labor, las fiestas son sólo participativas y populares para sectores de población concreta.

El Ayuntamiento desde su posición debe

guztientzakoak izatea bermatu behar du, herritarren parte-hartzea egiazkoa izan dadin. Jaien antolaketa herriko guzti-guztien egitekoa izan behar du, denetariko taldeek zer esana izan behar dute bertan eta herritarrek hautatutako ordezkariak ordezkatzeko dituzten aburuak eta nahiak bideratu.

Hargatik guztiagatik, Getxoko Popular udal taldeak aurkezten du hurrengo **ERABAKI-PROPOSAMENA:**

**LEHENENGOA.-** Getxoko Udal Batzarraren osoko bilkurak erabakitzen du, beharrezko izapidegintza has dadin jaien ordenantza berria prestatzearren, talde politiko guztien akordioa duela, gure udalerriko jaiak alde guztietara arautu ditzan.

**BIGARRENA.-** Jaien ordenantza horrek askotariko batza sortzea edukiko du xedetan; jai batzordeak, erakundeak, garrantziko sektoreak, herritarren elkarteak eta alderdi politiko udaleko ordezkariak dituztenetako kideak beren ordezkioak bidaliko dituzte batza horretara, aniztasunaren eta herritar guztien parte-hartzearen bermagarri gisa.

**HIRUGARRENA.-** Mozio honen berri udal komunikabideetan zabalduko da.

Keltse Eiguren andreak adierazten du Jaiak Getxon, udalerrira gehienetan bezala, ez daudela berariazko ordenantza baten bidez araututa, baizik eta horietako bakoitzarentzako baimen-dekretuak zehaztutako arau sektorial desberdinen bitartez. Gaur egun dagoen araudiarekin

garantizar unas fiestas para todos y donde la participación ciudadana sea efectiva. La organización de las fiestas debe ser labor de todos los vecinos, donde todo tipo de colectivos tengan voz y los representantes de los vecinos elegidos puedan canalizar el parecer y los gustos de sus representados.

Por todo esto, el Grupo Municipal Popular presenta la **siguiente PROPUESTA DE ACUERDO:**

**PRIMERO.-** El Pleno del Ayuntamiento de Getxo acuerda se inicie la tramitación para la redacción de una nueva Ordenanza de Fiestas, consensuada con los diferentes grupos políticos, que regule los festejos de nuestro municipio en todos los aspectos necesarios.

**SEGUNDO.-** Que dicha Ordenanza contemple una Comisión Mixta donde estén representados: las comisiones de fiestas, organismos, sectores de interés, agrupaciones vecinales y miembros de los partidos políticos con representación local que garantice la pluralidad, con unos festejos diseñados por todos los vecinos.

**TERCERO.-** Que se informe de la presente moción en los medios de comunicación municipales.

Keltse Eiguren indica que las fiestas en Getxo, como en la mayoría de los municipios, no están reguladas por una ordenanza específica, sino por diferentes normas sectoriales que el decreto de autorización concreta para cada una de ellas. Opina que con la normativa actual

nahikoa araututa dagoela deritzote eta, beraz, ez dute beste ordenantza baten beharrik ikusten. Udalak talde guztiekin jarraituko duela jaien normalizazioan lanean adieraziz amaitzen du.

Agustin Ruiz jaunak bere esku-hartzea herriko talde desberdinek jaietan egiten duten lana aitortuz hasten du. Mozioak ez duela ereduak aurrez aurre jartzea planteatzen uste du, baizik eta, lehendik dagoen ereduak aberasten duela guztiak parte hartzeko foro batean sartuz. Eredua baliozkoa da, baina ordenantzaren bitartez hobetu daiteke, beraz, aldeko botoa emango dute.

Maitane Nerekan andreak, BILDU taldearen izenean, udalerrian antolatzen diren jai desberdinak zerrendatzen ditu, bere ustez denen artean egiten duten lan eskuzabal horietan parte hartzen duten sektore, elkarte, bizilagun eta abarren parte-hartzearen eta arduraren aberastasun handia islatzen dute. Jai-batzorde batean parte hartzeko inori ez zaio galdetzen botoa zein alderdiri ematen dion ez nolako kirol, kultur edo bestelako zaletasuna duen. Ez dator bat mozioak dioenarekin, hots, ez direla irekiak. Ikusten dute mozioak jaien ereduak kritikatzeko duela eskuin muturreko talde politiko bati erakunde-kontrolatik eta auto-antolaketatik beren gainbegirarik gabe antolatutako jarduerak gustatzen ez zaizkielako.

Javier Elorza jaunak adierazten du mozioa euskaraz defendatzea gustatuko zitzaiola, baina bere bizitzako eta laneko ibilbidea dela bide ezin izan duela euskara ikasi. Jaien arauketarik gabe, mozioaren edukia onartzeko arrazoi gehiago dagoela deritzo, egungo egoerak irregularitasunak egotea ahalbidetzen baitu, Getxo bezalako udalerrri batean onartu ezin daitekeena.

existente es suficiente regulación por lo que no ven la necesidad de una ordenanza. Finaliza indicando que el Ayuntamiento seguirá trabajando con todos los colectivos para la normalización de las fiestas.

Agustín Ruiz inicia su intervención con un reconocimiento de la labor de los diferentes colectivos vecinales realizan en las fiestas. Cree que la moción no plantea enfrentar modelos sino enriquecer el modelo existente integrando a todos en un foro de participación. El modelo es válido pero puede mejorar a través de la ordenanza, por lo que votarán a favor.

Maitane Nerekan, en nombre de BILDU, da lectura a las diferentes fiestas que se organizan en el municipio y que reflejan, en su opinión, una gran riqueza de participación y responsabilidad vecinal de trabajo mancomunado y desinteresado en el que participan diferentes sectores, asociaciones, vecinos, etc. Manifiesta que para pertenecer a una comisión de fiestas a nadie se le pregunta a quien vota ni que afición deportiva, cultural o de otro tipo tiene. No comparte lo que la moción indica de que no sean abiertas. Observan que la moción critica el modelo festivo porque a un grupo político de extrema derecha no le interesan actuaciones fuera del control institucional y la autoorganización sin su supervisión.

Javier Elorza manifiesta que le hubiera gustado defender la moción en euskera pero que debido a su trayectoria vital y profesional no les es posible aprender euskera. Ante la inexistencia de una regulación de las fiestas estima que hay más razones para asumir el contenido de la moción ya que la actual situación posibilita la existencia de irregularidades,

Jai-batzordeek soilik hartzen dutela parte deritzo ez bizilagunek eta ezagutzen dituen elkarteei ere ez zaiela deitu jai-batzordeetara. Jai-batzordeek egiten duten lana eskertzen dutela azpimarratzen du, jende askoren lan eskuzabalik gabe ezin izango baitziren antolatu. BILDU taldeari jai-batzordeak zergatik ez diren udalerriko iritzi desberdinetara irekitzen galdetzen dio eta aurkeztutako mozioak araudi bat eta jai-batzordeez gain Udala eta beste sektore batzuk ordezkatura egongo diren foro bat dituela xede azpimarratzen du.

Maitane Nerekan andrearen ustez, mozioa prestatzeko orduan ez dira jai-batzordeak zer direnaz informatu. Jai-batzorde horiek elkarte desberdinetako ordezkarietara osaturik daude, eta parte hartzen duten elkarteetako batzuk aipatzen ditu. Ostalaritzak ere jai-batzordeetan parte hartu izan du. Jai-batzordeek e-mail bat dutela aipatzen du eta haiekin harremanetan jartzea oso erraza dela; Talde Popularra kritikatzeko du antolaketan irregularitasunak ematen direla esan eta irregularitasun horiek zein diren zehazten ez duelako. Jai-batzordeei Udalak jarritako baldintzak betetzen ez badituzte zehapenak jartzen zaizkiela gogoratuz amaitzen du.

Keltse Eiguren andreak jaiak eraentzen dituen berariazko araudirik ez dagoela zehazten du, baizik eta, jai bakoitza baimentzen duen dekretuan zehazten diren araudi sektorialak daudela dio. Mozioak jaien udal-ordenantza bat planteatzen du, baina nahiko arauketa badagoela eta ordenantza bakarra onartzea ez dela beharrezkoa deritzo.

Javier Elorza jaunak Gobernu Taldeari eta BILDU taldeari Getxoko jaietan udal-

cuestión no admisible en un municipio como Getxo. Estima que sólo participan las comisiones de fiestas, no vecinos, y tampoco las asociaciones que conoce han sido llamadas a las comisiones de fiestas. Recalca que agradece la labor que realizan las comisiones de fiestas, ya que sin un trabajo desinteresado de mucha gente no se podrían realizar las fiestas. Pregunta a BILDU por qué las comisiones de fiestas no se abren a diferentes pareceres del municipio y recalca que la moción presentada pretende que exista una normativa y un foro donde además de las comisiones de fiestas están representados el Ayuntamiento y otros sectores.

Maitane Nerekan opina que para preparar la moción no se han informado de lo que son las comisiones de fiestas, que se componen de representantes de diferentes asociaciones, dando lectura a algunas asociaciones que participan. También ha existido la participación de la hostelería en la comisión de fiestas. Comenta que las comisiones de fiestas tienen un mail con el que se puede comunicar fácilmente y critica al Grupo Popular que hable de irregularidades en la organización sin indicar cuales son. Finaliza recordando que si las comisiones de fiestas no cumplen con las condiciones que impone el Ayuntamiento son sancionadas.

Keltse Eiguren precisa que no existe una normativa específica que regule las fiestas, sino que existen normativas sectoriales que se concretan en el decreto autorizador de cada fiesta. La moción plantea una ordenanza municipal de fiestas pero estima que existe regulación suficiente y no es preciso aprobar una ordenanza única.

Javier Elorza critica que al Equipo de Gobierno y a BILDU no les parezca

ordezkariak parte hartzea lehentasunezkoa ez iruditzea kritikatzeko du. Jai-batzordeen lana ez du kritikatzeko, baizik eta ordezkariak handitu behar dela deritzo, hautatutako ordezkariak sartuz eta, baita, parte hartzen duten taldeak zabalduz ere. Mozioak lehen dagoena aberastea proposatzen du ordezkariak eta ideiak ekarriz. Iaz, San Inazio jaietan, Udalak jaiak hasi baino bi egun lehenago jaietako ekintzen programa ez zuela ezagutzen gogorarazten du. Gobernu Taldeari Getxoko jaien berriazko arauak beharrezkotzat jotzen duela adierazten dio, baina kasu bakoitzean dagokion dekretu bidez zehaztearen kalterik gabe.

Maitane Nerekan andrearen iritziz, Talde Popularrak ez du egungo jai-eredua errespetatzen, baizik eta kontrolpean egongo den beste eredu bat bilatzen du. Ez du uste talde politiko desberdinetako kideek jai-batzordeetan parte hartzeko inolako arazorik edukiko dutenik. Jai-batzordeak jaietara etortzen diren 40.000 lagun baino gehiagok legitimatzen dituztela uste du eta, beraz, udalbatzarkideena baino legitimitate handiagoa dela. Elkarrekin dagokienez, ez du ezagutzen hurbildu den eta baztertuta izan den elkarerik; nola jarduten duten ezagutzeko modurik onena jai-batzordeetara hurbiltzea da.

Javier Elorza jaunak behin eta berriz azpimarratzen du mozioak ez duela inposatzeaz hitz egiten, baizik eta aberasteaz eta integratzeaz. Edozein kasutan ere, Getxoko bizilagun guztiek nahi dituzten jaiak inposatuko liritekeela dio eta ez jai-batzordeek soilik nahi dituztenak. Mozioak aberastea bilatzen duela azpimarratzen du eta planteatzen dena ekarri hobetu daitekeela uste du. Getxoko jaien antolaketa-ereduak udalerraren neurria egokitu behar duela

prioritario que participen en la organización de las fiestas de Getxo los representantes municipales. No critica la labor de las comisiones sino que estima que hay que ampliar la representación, incorporando a representantes elegidos y se amplíen también los grupos que participan. La moción plantea enriquecer lo que existe aportando representatividad e ideas. Recuerda que el año pasado en las fiestas de San Ignacio el Ayuntamiento no conocía el programa de actos dos días antes del inicio de las fiestas. Al Equipo de Gobierno le indica que estima necesaria una regulación específica de las fiestas de Getxo sin perjuicio de la concreción en cada caso a través del oportuno decreto.

Maitane Nerekan opina que el Grupo Popular no respeta el actual modelo festivo sino que busca otro modelo que esté bajo control. No cree que los miembros de los diferentes grupos políticos tengan problemas para participar en las comisiones de fiestas. Estima que las comisiones de fiestas están legitimadas por más de 40.000 personas que asisten a las fiestas lo que es una mayor legitimidad que la de los corporativos. Respecto a las asociaciones, no conoce ninguna que se haya acercado y que se le haya excluido y opina que lo mejor es acercarse a las comisiones para conocer su forma de actuar.

Javier Elorza insiste en que la moción no habla de imponer, sino de enriquecer e integrar, en todo caso se impondrían las fiestas que quieren todos los vecinos de Getxo y no sólo las de la comisión de fiestas. Recalca que la moción busca enriquecer y cree que con la aportación de lo que se plantea se mejoraría. Finaliza indicando que el modelo de organización de fiestas de Getxo debe adecuarse al tamaño del municipio con más participación de todos los vecinos.

deritzo bizilagun guztien partaidetza handiagoarekin.

Mozioa bozkatzeko da eta atzera botatzen da PP eta PSE-EE taldeen aldeko 11 boto eta EAJ-PNV eta BILDU taldeen aurkako 14 boto lortzean.

Sometida la moción a votación es rechazada al obtener 11 votos a favor: PP, PSE-EE, 14 votos en contra PNV, BILDU.

**136.- PP ALDERDIKO UDAL TALDE POLITIKOAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: 2014KO UDAL AURREKONTUEN AURKEZPENA.**

**136.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL POPULAR S/ PRESENTACIÓN DE LOS PRESUPUESTOS MUNICIPALES 2014.**

Eduardo Andrade jaunak mozioa irakurtzen du. Eduardo Andrade da lectura a la moción.

Ana Helguera andreak aurrekontuari dagokionez adierazten du talde guztien artean negoziatua izan dadin proiektua prestatzen ari direla eta lortzen dituzten babesen arabera, Osoko Bilkurari aurkeztea edota egungoak luzatzea planteatuko dutela; beraz, mozioari dagokionez, abstenitu egingo dira.

Ana Helguera manifiesta que respecto al presupuesto, se está preparando el proyecto para que sea objeto de negociación por todos los grupos y en función de los apoyados obtenidos, se planteará su presentación al Pleno o prorrogar los actuales, por lo que en relación a la moción se van a abstener.

Eduardo Andrade jaunak adierazten du Talde Popularra harritu egiten dela data hauetan aurrekontua prestatzen egotearekin, jada onartuta egon beharko zuketenean. Talde politikoei eta herritarrei aurrekontuaren proposamenak aurkeztu behar zaizkiela gero negoziatu ahal izateko planteatzen du. Jada gauzatu diren negoziazioetan datu gutxi planteatzen direla eta agiri osoa ez dela aurkezten gogorarazten du. Aurrekontu-agiri osoa lehenbailehen aurkezteko eskatuz amaitzen du.

Eduardo Andrade indica que al Grupo Popular le sorprende que en estas fechas estén preparando los presupuestos cuando deberían haber estado aprobados. Plantea que hay que presentar a los grupos políticos y a los ciudadanos las propuestas de los presupuestos para luego posteriormente negociarlos. Recuerda que en las negociaciones que se han realizado se plantean pocos datos y no se presenta el documento completo. Finaliza pidiendo que cuanto antes se presente el documento presupuestario completo.

Maitane Nerekan andreak BILDU taldeak mozioa arrazoi logikoengatik babestuko duela adierazten du, aurrekontuak aurkeztearen, eztabaidatzearen eta parte-hartzaileak izatearen aldekoa baita. Pozten da Gobernu Taldeak aurrekontuak talde

Maitane Nerekan indica que BILDU apoyará la moción por razones lógicas ya que apoya que los presupuestos se presenten, se debatan y además sean participativos. Se alegra de que el Equipo de Gobierno haya hablado de que va a



politikoekin negoziatu behar dituela adierazi izanaz, baina iazko esperientziek ez diote itxaropen handiegirik ematen.

negociar con los grupos políticos los presupuestos pero, las experiencias del año anterior no le genera mayores esperanzas.

Luis Almansa jaunak adierazten du Talde Sozialistak aldeko botoa emango duela, nahiz eta Gobernu Taldearen jarrera egokia aitortzen duen. Gobernuaren tresnarik garrantzitsuena aurrekontuak direla aitortzen du eta horien gabeziak gobernu ahula eta sinesgarritasuna galtzen ari dena agerian uzten duela. Horretaz gain, egoera horrek ordezkartzarik handiena duten alderdiei eragiten diela ere adierazten du, erantzukizunik handiena ere horiek baitute. Egun bizi dugun egoera ekonomikoan erakundeak aurrekonturik gabe edukitzea ez dela komeni deritzo. Gobernu Taldearen aldetik nahiz oposizioko alderdien aldetik joko politiko asko dagoela adieraziz amaitzen du.

Luis Almansa indica que el Grupo Socialista votará a favor aunque reconoce una buena actitud del Equipo de Gobierno. Recuerda que el presupuesto es el mayor instrumento de gobierno y la carencia del mismo evidencia un gobierno débil que está perdiendo credibilidad. Indica también que esta situación afecta a los partidos con mayor representatividad por tener una mayor responsabilidad y opina que no es conveniente tener a las instituciones sin presupuestos en la actual situación económica. Finaliza manifestando que hay muchos juegos políticos tanto por parte del Equipo de Gobierno como por los partidos de la oposición.

Mozioa bozkatu eta onartu egiten da PP, BILDU eta PSE-EE taldeen aldeko 15 boto eta EAJ-PNV taldearen 9 abstentzio-boto lortzean.

Sometida la moción a votación es aprobada al obtener 15 votos a favor: PP, BILDU, PSE-EE, 9 abstenciones: PNV.

Ondorioz, honako mozio hau onartzen da: En consecuencia, es aprobada la siguiente moción:

Gaudenean gaudela ikusita daukagu nola erakunderik behinenez, hots Eusko Jaurlaritzak, foru aldundiak eta inguruko udalik gehienek, beren aurrekontuak aurkezten diharduten.

En las presentes fechas estamos comprobando como las principales Instituciones, Gobierno Vasco, Diputación, y los principales Ayuntamientos del entorno están presentando sus presupuestos.

Haietan, batetik aurreikusitako sarrerak ageri dituzte, nola zenbat sartu uste duten eta bestetik aurreikusitako gastuak, dirua noiz zertan baliatu asmo duten.

En ellos se reflejan sus previsiones de ingresos, cómo y cuánto van a ingresar y sus previsiones de gastos, cómo y cuándo van a gastar ese dinero.

Behin aurrekontuak herritarrei eta gainerako alderdi politikoei aurkeztu

Una vez presentados los presupuestos a la ciudadanía y los demás partidos políticos,

eta gero, erakunde eta udal horiek beste talde politikoen bermearen eta laguntzaren bila dabilta behar duten babesa eskuratu nahiz, aurrekontuak onets ditezten.

Kasurik gehienetan, behin aurkeztu, tratatu eta negoziatu eta gero, aurrekontuak onesten dira azkenerako, gainontzeko alderdiek egindako proposamenetako batzuk sartuta. Hortaz, aniztasuna onesterakoan handiagoa izan da.

Getxon, ordea, alkate honek bere gobernu taldea lagun zuela Alkatetza 2011n bereganatu izan duen ezkeroztik, aurrekontuaren izpirik ere ez da inondikan abertu.

Ez herritarrek ez alderdi politikoek ezin jakin izan dugu zer nolako proiektua duen alkate honek eta are gutxiago haren gainean botoa eman.

Egoera ekonomiko orokorra batetik eta Getxokoa bestetik 2011 urtea ezkerotik nabariki aldatu dira eta aurrekontuek egoera berri hori agertarazi behar lukete eta hura arintzen edo bederen leuntzen ahalegindu.

Gaurdainokoa bi urte du udal aurrekonturik gabe gauden; dirudienez hirugarren urterako bidean ibili gabiltza haiek eduki gabe.

Hargatik guztiagatik, Getxoko Popular udal taldeak aurkeztu du hurrengo **ERABAKI-PROPOSAMENA:**

**PRIMERO.-** Getxoko Udal Batzarrak osoko bilkuran Getxoko alkateari eskatzen dio, 2013ko abendukoan 2014ko udal aurrekontuen proiektua aurkez dezan eta osoko bilkura honi

estas Instituciones y Ayuntamientos buscan el apoyo del resto de las fuerzas políticas para conseguir el apoyo necesario para que estos presupuestos sean aprobados.

En la mayoría de los supuestos, tras esa presentación y esa fase de negociación se consiguen aprobar unos presupuestos a los que se les han incluido determinadas propuestas de otros partidos y que por lo tanto recoge una mayor pluralidad en su aprobación.

En Getxo, sin embargo, desde que este Alcalde y su equipo de gobierno llegaron a la Alcaldía en el 2011, los presupuestos ni siquiera se han presentado.

Ni los vecinos, ni los demás partidos políticos hemos podido conocer cual es el proyecto de este Alcalde, ni mucho menos votarlo.

La situación económica global y la de Getxo en particular han cambiado notablemente desde el año 2011 y los presupuestos deberían recoger esta nueva situación y trabajar para paliarla o por lo menos suavizarla.

A día de hoy no se entiende que llevemos dos años sin presupuestos municipales y caminemos hacia el tercer año sin ellos.

Por todo esto, el Grupo Municipal Popular presenta la **siguiente PROPUESTA DE ACUERDO:**

**PRIMERO.-** El Pleno del Ayuntamiento de Getxo insta al Alcalde de Getxo para que en el mes de Diciembre 2013, presente el Proyecto de Presupuestos Municipales 2014 y lo someta a la aprobación de este

onestera eman diezaion.

**SEGUNDO.-** Mozio honen berri udal komunikabideetan zabalduko da.

Marisa Arrue andreak adierazten du Talde Popularrak Osoko Bilkuratik irten egingo duela BILDU taldeak bere mozioak aurkezten dituen bitartean, izan ere, ez baitute PP alderdiaren egoitzaren aurka izandako atentatua bere osotasunean kondenatzen ez duen talde batekin eztabaida konpartitzerik nahi. Jarraian, Talde Popularreko udalbatzarkideek bilkura-gelatik irteten dute.

**137.- GETXO-BILDU ALDERDIKO UDAL TALDE POLITIKOAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: AUZOKIDEEN HITZ HARTZEA OSOKO BILKURAN.**

Arantza Gutierrez andreak mozioa irakurtzen du.

Proposamena alkatetzari bidali zitzaioa eta handik emandako erantzunak ez dituela asebeste adierazten du, ondorioz, mozio hau aurkeztu dute konponbide arin bat lortzeko. Mozioak ez du proposamen zehatzik jasotzen, zeina, Bozeramaileen Batzarrean egin behar dela deritzon.

Keltse Eiguren andreak adierazten du Osoko Bilkura udalbatzaren parte hartzeko foroa dela eta, bertara, udalerrri eta bertako bizilagun guztiei eragiten dieten gaiak eramatean direla. Herritarren parte-hartzea Osoko Bilkuran, bilkuraren azkeneko zatian egiten dela deritzo; beraz, Osoko Bilkuraren hasiera-orduak eta bilkuren iraupenak baldintzatu egiten

pleno municipal.

**SEGUNDO.-** Que se informe de la presente moción en los medios de comunicación municipales.

Marisa Arrue indica que el Grupo Popular va a abandonar el Pleno durante las mociones de BILDU porque no quieren compartir el debate con un grupo que en su totalidad no ha querido condenar el atentado de la sede del PP. A continuación, los corporativos del Grupo Popular abandonan el salón de sesiones.

**137.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL BILDU S/ INTERVENCIÓN DE LOS VECINOS EN EL PLENO MUNICIPAL.**

Arantza Gutiérrez da lectura a la moción.

Manifiesta que la propuesta se remitió a la Alcaldía y que la respuesta no les ha satisfecho por lo que han presentado la moción a fin de lograr una solución rápida. La moción no incorpora una propuesta concreta, que estima debe de realizarse en una Junta de Portavoces.

Keltse Eiguren indica que el Pleno es el foro de participación de la corporación municipal y se llevan cuestiones que afectan a todo el municipio y los vecinos. Estima que la participación ciudadana se realiza en el Pleno al final de la sesión, por lo que la duración de las sesiones y la hora de inicio del Pleno condicionan la misma. Para cambiar esta situación, manifiesta

dute. Egoera hori aldatzeko, neurri desberdinak har daitezkeela adierazten du, esate baterako, ordua aldatzea, mozio-kopurua mugatzea, txandak mugatzea, mozioak behar bezala kalifikatzea eta abar. Beste aukera bat herritarren parte-hartzea beste foro batzuetan sustatzea izan daitekeela adierazten du, Gobernu Taldea egiten ari den moduan. Herritarrek parte hartzeko guneak badaudela gogorarazten du eta horietan parte hartzen duten herritar guztiei eskertzen die. UEOn hainbat artikuluren balizko erreformari dagokionez, UEOn erreforma orokorraren baitan egin beharko litzatekeela deritzo; beraz, abstenitu egingo dira.

Agustin Ruiz jaunak esku hartzen du Osoko Bilkura aztertzen bada, osagai surrealista duela deritzola adieraziz, zeinak, surrealismo mailarik handienera herritarren parte-hartzearen txanda heltzen denean iristen den, txanda horretan alkateak soilik hartzen baitu parte. Egoera horren aurrean, hainbat alditan udalbatza-aretoa uztea planteatu duela azaltzen du, baina bizilagunenganako errespetuagatik ez duela alde egin. Ez du uste Gobernu Taldeak UEOn erreforman puntu horretan alkatearen protagonismoa lagako duenik. Mozioari dagokionez, osatugabea dela deritzo eta ez du behin-behinekoa kalifikazioa ulertzen.

Arantza Gutierrez andreak adierazten du bizilagunak Osoko Bilkuran jorratzen diren gaietan interesaturik egon daitezkeela, baina ez dutela zertan eztabaidetan interesatuta egon. Mozioak ez ditu hartu beharreko neurriak zehazten, baizik eta, zeregin hori Bozeramaileen Batzarrari esleitzen dio UEO erreformatu bitartean. Bere ustez, dauden foroek erakundeetako ordezkariak hartzen dituzte eta Osoko Bilkuran bizilagunen

que podrían adoptarse diferentes medidas como cambiar la hora, limitar el número de mociones, limitar turnos, calificar correctamente las mociones, etc. Indica que otra opción es fomentar la participación ciudadana en otros foros como está realizando el Equipo de Gobierno. Recuerda que existen espacios de participación ciudadana y agradece a todos los ciudadanos que en ellos participan. Respecto a la posible reforma de diferentes artículos del ROM opina que debe hacerse dentro de la reforma general del ROM, por lo que se van a abstener en la moción.

Agustín Ruiz interviene manifestando que si se analiza el Pleno, estima que tiene un componente surrealista que alcanza su mayor nivel cuando llega el turno de participación de los vecinos, turno en el que sólo interviene el Alcalde. Estima que ante esta situación se ha planteado alguna vez abandonar el Salón de Plenos pero que no lo hace por respeto a los vecinos. No cree que el Equipo de Gobierno en la reforma del ROM vaya a ceder el protagonismo del Alcalde en este punto. Respecto a la moción le parece incompleta y no entiende la calificación de provisional.

Arantza Gutiérrez manifiesta que aunque los vecinos pueden estar interesados en los temas que se tratan en los Plenos no están necesariamente interesados en las discusiones. La moción no determina las medidas a adoptar sino que asigna esa labor a una Junta de Portavoces en tanto se reforma el ROM. Cree que los foros existentes acogen a representantes de entidades y en el Pleno cabe también la posibilidad individual de los vecinos.

banakako aukera ere badago.

Mozioa bozkatu eta onartu egiten da BILDU eta PSE taldeen aldeko 6 boto eta EAJ-PNV taldearen 9 abstentzio-botorekin. Sometida la moción a votación es aprobada al obtener 6 votos a favor: BILDU, PSE, 9 abstenciones PNV.

Ondorioz, honako mozio hau onartzen da: En consecuencia, es aprobada la siguiente moción:

Legegintzaldian zehar ikusi dugunez ohikoa da arrazoi bat edo bestea dela medio (mozio kopurua, talde politikoen aldetik argumentazioen errepikapenak, beste erakunde batzuei buruzko eztabaidatan sartzea...), Osoko Bilkurak iluntzera arte luzatzea, batzuetan baita gau erdira heltzea ere. Tal y como hemos visto durante la legislatura, por una razón o por otra (número de mociones, repetición de argumentaciones por parte de los políticos, entrar en debates sobre otras instituciones...), las sesiones plenarias se alargan hasta el anochecer, y alguna vez también hasta la madrugada.

Bilkuran hitza hartzeko asmoz etortzen diren auzokide zein elkarte ordezkariak eztabaida luzeak entzutera behartzen ditugu, horietan interesa izan ala ez, amaieran 10 minutuko tartean hitza hartu eta beraien kexuak edo galderak egin ahal izateko. Obligamos a los vecinos y representantes de asociaciones que vienen al pleno con intención de participar, a escuchar largos debates, tengan o no interés para ellos, y solo les dejamos 10 minutos al final para realizar sus quejas o preguntas.

Nabarmenak dira Osoko Bilkuretan herritarren parte hartze txandak dituen zailtasunak: ez dira aktan jasotzen, Alkateari bakarrik zuzendu ahal dira, ez dakite noiz izango duten txanda... Badaude ROMaren berrikusketak egin arte aldatu ezin diren gauzak. Baina EHBILDUtik pentsatzen dugu behin-behineko aldaketa urgenteak adostea posiblea dela auzokideen txanda horiek pixka bat errazteko. Es evidente la dificultad que tiene el turno de participación ciudadana en los plenos: no se recoge en las actas, solo se pueden dirigir al Alcalde, no saben cuando dispondrán del turno... Hay cosas que no se cambian hasta hacer la revisión del ROM. Pero desde EHBILDU pensamos que es posible acordar los cambios provisionales urgentes, de cara a facilitar un poco esos turnos de los vecinos.

Hori dela eta, ondoko proposamena egiten dugu Osoko Bilkuran adostu eta, onartzekotan, gauzatu dadin: Por todo ello, hacemos la siguiente propuesta en el Pleno, para que en caso de acordarla y aceptarla, se lleve a cabo:

- Berehala, Bozeramale Batzordearen bitartez edo dagokion Komisio Informatiboan auzokideen txandari dagokion ROM-eko
- Abrir inmediatamente mediante la Junta de Portavoces y en la Comisión Informativa el debate sobre el punto del ROM

puntuaz eztabaida zabaltzea (154. puntuaren 2. atala) eta behin-behineko irtenbidea adostea ROMaren berrikusketa osoa egin arte behintzat.

correspondiente al turno de los vecinos (apartado 2º del punto 154), y acordar una solución provisional hasta realizar una revisión completa del ROM.

**138.- GETXO-BILDU ALDERDIKO UDAL TALDE POLITIKOAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA.**

**138.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL BILDU S/ DÍA INTERNACIONAL DEL EUSKARA.**

Maitane Nerekan andreak mozioa irakurtzen du.

Maitane Nerekan da lectura a la moción.

Alkateak, EAJ-PNV taldearen bozeramaile gisa, mozio hau batera eztabaidatu dela adierazten du, EAJ-PNV taldeak aurkeztu zuen antzeko mozio bat zela bide. Ez dutela aurka bozkatuko adierazten dute eta bi mozioak onartzeak bi talde horien euskararekiko konpromisoa islatzen duela, nahiz eta kasu honetan ezin izan den akordio batera iritsi. Euskararen defentsan batera jardutea ez dute baztertzen.

El Alcalde como portavoz del PNV manifiesta que sobre esta moción se ha debatido conjuntamente con motivo de una moción similar presentada por el PNV. Indica que no van a votar en contra y la aprobación de las dos mociones refleja el compromiso de dos grupos con el euskera si bien, esta vez no ha sido posible el acuerdo, no descarta que puedan trabajar conjuntamente en la labor de defensa del euskera.

